

Ama bakarra da

Felix ZUBIAGA


I

«Agur nere bihotzeko
amatxo maitea»
(Iparragirre).

Zuk bederatzi urte baino ez zeunkazan aldean, bederatzi urte eta amaren mosuen dardarea matrailean, amaren mosuen dardarea eta «agur, laztana, ondo portau zaitetz» haren azken oharren doinu gozoa bihotz-belarrietan, ontzia Bermioko kariatik atzerrirantz abiatu zanean.

Gainerakoa, umeen iskidua, arrainontzien turutotsak eta kai gainean eskuzapiak astintzen iharduen guraso eta senideen agur etsia. Itxasoa gero eta handiago egiten zan zure aurrean eta zure ostean, Bermio gero eta txikiago han urrunean eta Sollube itxasoak zelan irunzten eban ikusi zendun azkenean.

Ontzi biak umez beterik zenkusan alkarren lehian joaten. Inglaterrako ikurrina eroen, Frankoren destroyerren batek bidera urten eta kalteren bat izan ez zengien. «Blanche» zan zure aurretik joian ontziaren izena eta ostaz gogoratzen zara orain zeu zeneroazan ontziaren izena, ke baltza eriola bakarrik.



JESSE-85

Andereñoak kareletik aldentzeko dei egiten eutsun, deskuidoan mareoak emon eta itxasora jausi ez zeintezan. «Bai, bai, ba noa» zinoazen zuk zeure kolkorako, baina begiak bustitzen eutsuzan malko ekurugaitz hareek lehortu arte karelari eusten zeuntson, azken itxaropenari legez.

—«Ehun da berrogetamar zenbakia!» —dei egin eutsun ostera andereñoak, baina zuk ez zenkian, paparretik zintzilik zeunkan txartelaren zenbakia horixe zala, hain zuzen.

Andereñoak be ez ekian zure izena. Batian «Joan» deituko eutsun, bestean «Jon». Listean erraturen bat egongo zan zihur. Zuk, etxean legez, beti «Jon» deitzea gura zendun eta ez Eskola Nazionaleko maistrearen aldrebeskeriaz.

Egunak igaro ziran andereñoak zure izena ikasi ebane-ko. Orduan Oleron ugarte ederrean, zengozan, umeentzak Frantziako Gobernuak han eukan Kolonia apainean. «Maison Hereux» deitzen zan. Izan be, egoitze zoragarri harek bezperako zuen muxak gozatu eta irribarrez loratu eutsuen alkarte barria. Lareun eta berrogeitamar ume zintzazen guztira. Berrogeitamarnaka taldekatu zinduezan adinari egokionez. Talde bakoitzean ikasgela berezia zenduen etan neskak eta mutilak logela banatan lo egiten zenduen. Ze gozo egoan Frantziako gaztaea eta ze ugari banantzen eutsuen! Ene! Hantxe ahaztu zenduezan gudateko goseak, zuentzak gudea ia amaitu izan bailitzan, zuen beste anai-arreba handiagoak edo txikiagoak Bilbon eta Erandion oraindino errazionamendura beharturik egozela.

Andereñoak «Lutelestia» eta gainerako ikasgaiak erakusten eutsuezan. Batzuetan Olerongo hondartzan bertan.

Bordeleko itxasadarra zenduen aurrez-aur eta egun argietan La Rochele portua ikusten zan iparrerago. Baina atzera begiratzen bazenduen, Bermioren arrastorik be ez: dana zan itxasoa.

—Andereño, zenbat kilometro dagoz Bilbora? —galdetzen zeuntson andereñoari.

Andereñoak ibili gendun bidea mapan atzatzeka igaroten eban hatzamarraz. Lehenengo trenez egin zenduena Donibane Lohitzunera arte, gero handik Bermiora itxasoz egin zenduena. Mapearen beheko barrenean aurkitzen zan Bilbo.

—Mila kilometro bat inguru —erantzun eutsun andereñoak eta zuek «oo» harritu egin zintzazen.

Frantziako mapan Euzkaditik barrentxo bat baino ez zan agertzen, hain zuzen be Espainiako mapan agertzen ez zan beste barrentxoa: Auñamenditik gora egoena eta Bilborainoko itxasertza, Frantziako mapearen laukia horniduten etorrena. Zuentzat bihotza legez erdibitu ezina zan Euzkadiko mapea bitan banandurik agertzen zan, Espainiako mapetan eta Frantziakoetan. «Pais Basque» edo «Pais Vasco» deitzen eben, baina zuentzat harrezkero «Euzkadi» zan. Eta Euzkadi gudan egoan hain zuzen, bere mapea osatu eta askatasuna lortzearren. Oi ene! Eta egun haretan Gernikaren bonbaketa jakin zenduen irratiz. Zuen samina hango erreketeta eta heriotzak jakitean!

—«En Bilbao no podrán entrar» —inotsun Iñaki bilbotar lagunak.

Iñakik bere aitak-eta «Cinturón de Hierro» zalakoan zuk ezin ulertuzko lanak eta defensak kontatzen eutsuzan,

Bilbo Gernika baino gehiago zala adierazteko. Zeu be eritzi bardinekoa zintzazan eta Bilbo aske zan artean Euzkadi askatuta emoten zendun.

Sabin, zure beste laguna, ostera, ez baitan isiltzen zan. Bera be, egotez gudarien alde egonarren, ezkor agertzen zan hako karte hartu ebanerik. Aita arerioen eskuetan eta Frankoren espetxean egoela, esaten eutson.

—Egon hadi; gureak askatuko joek —animatzearren esan zeuntson zuk Sabini, baina Sabinen dudak ez ziran argitzen.

Zeuk hartu zenduzan barriak hobeak izan ziran. Bakarrik Mikel zure anaia zaharragoa frentera deitua izan zala, «ha balientea da, ha ez da jausiko» zihur zengozan zu eta arrebearen letra artean, amaren partez «zelan zagoz laztana...» haregandik-entzunlako aboskerak baretzen zinduzan.

Andereñoak eskutitzei erantzuteko agindu eutsuenean, zuk ikastolan abesten zenduen harako kantuaz hasi zendun zeurea: «Agur nere bihotzeko, amatxo maitea, laster etorriko naz, konsola zaitean...» eta horrela errezago egin jatzun ingia betetea.

Oleron ugarteko zuen paradisoak ez eban asko iraun. Hile bi igaro orduko, andereñoak deitu eta beste toki batera joateko prestatu zeintezela, agindu eutsuen.

—Nora, andereño? —itaundu zendun zuk.

—Euzkaditik datozen ume barrientzako tokia garbi itzi behar dogu. Hemen ez dago danontzako tokirik, —erantzun eutsun andereñoak.

Zuk Euzkaditik hurrago ala urrunago joateko zanentz jakin gura zendun eta andereñoak, irribarrez, lur barriak ikustera bultzatzen zinduezan. Baina irribarrearen gainetik zuk haren bekokiko ixurrean irakurri zendun: «Euzkadin ez dago zihurtasunik eta zu Euzkaditik gero eta urrunago zoaz». Alperrik zinotsun Iñaki bilkotarrak be faxistak ez zirela Bilbon sartuko. Bai, oraindino ontziak Santurtzitik etozen, baina zergaitik ez, leben lez, Bermiotik?

—«Habana» ontzi handia dalako eta Bermion ez da kabitzen. Habanak bardin hartzen dauz bi mile ume.

Jo! Bi mile ume! Zuek bostehun eskaz zintzezan. Bilbon arriskua ugarituala, ogia urritzen doalako seinalea. Ez egoan astirik galtzeko. Tokia egin behar zeuntsen. Zuek dagoneko gerturik zengozen hegadea urrunago egiteko. Zuek «beterano» ikasiok, harrezkero ba zenkien «oui monsieur, oui madame» esaten.

Barrero be zeure maletea eskuan eta 150 zenbakia paparrean La Rochele geltokian zengozan Pariserantz eroango zinduezan trenaren begira. Andereñoak, medikua, abadea, sukaldaria eta beste laguntzaileak han-hemen arazoturik zenkusan eta une haretan, geltoki bazterrean, Gorka, nausien taldekoa ezezagun bategaz burrukan, alkarri oratu ta lurrean zilipurdika ikusi zendun. Zeu be odolaren berotasunera hurreratu zintzazan. Gorkak azpian eukan ezezaguna eta txaloak joten zeuntsozen. «Nor da» itauntzen zendun. Azpiko mutilaren traje urdina eta gorbata baltza ezezagunak ziran zuentzat.

—Eutsi, Gorka; ez parkatu—. Begiraleok parte hartzen zenduen.



—«Ya verás cuando venga mi padre»—. Azpikoak ez eban txitik egiten.

—«Pues que se entere que los vascos no hemos sido...»—. Gorkak esku biekín samatik eukan aurkalaria.

—Baina zer jasoten da hemen? —Nausien andereñoa arrapaladan etorten ikusi zendun, Gorkari sorbaldetatik heldu eta aldeazotzen.

—Maketo horrek Gernika geuk erre dogula esan dau, —salatzen eban Gorkak ezezaguna begiak odoletan.

Andereñoak erdi iguinez, erdi errukiz begiratu eutson mutil ezezagunari; traje apainari hautsak astintzen ihar-duen bera. Gorkaren adineko, hamairu urte ingurukoa zan.

—Goazen —agindu euskun andereñoak—. Zuek ba dakizue hori guzurra dala.

Geure artean euskera bakarrik egiteko agindu euskun. Guk geure ohorea zaindu behar gendula, euskaldunon fama, baina gudarielako diziplina gordeaz.

—Zuek erderarik egin ez bazenduen, ez jatzuen harrotuko mutil hori. Eztabaidarako bidea emon deutsozue: zeuetariko bat dala edo zeuon lepotik barre egin daikela iste izan dau.

Bai, errudun zintzazan zeu be. Eskuak garbi eukiarren barrutik traje apaindun haren bekaitza zendun. Zelan uste zeinken egia aldezte eta haren trajea lurretik erabiltea bat bera eitekela? Alemaniatik etorren edo Alemaniara joan konsulen baten semea-edo zala jakin zen-

dun, maletak zaintzen, aitari begira... «Jo! Etxera joa-
teko» ohartzen zuk. Zuek oster, etxetik ate, gurasoen-
gandik urrun, aita guraso batzuk frentean, besteak kar-
tzelan edo be txarrago... Alemanok barriz ondo begitan
zenduezan hako harroskoa eurei eperdia garbitan etorteko.
Geuk erre gendula Gernika? Hori be entzun egin behar!
Hagaitik atseginez zenkusan mutil haren orraskeraren
arraia Gorkaren hatzaparretan lardaskatua. Bestalde ezin
disimulatu, zeu, zeure lagunak legez, ule motx zengozala.
Denporatxua zan zeuri inork uleak orrastu eutsuzala, gai-
nera ez zeunkan arraiatarako ulerik buruan. Zeuk guda-
rien ohorea, Euzkadiren ohorea, zeure ohoreaz apur bat
nastatzen zenduzan. Ez zan hori baina gudarien diziplina.
Eta gudatan parte hartzekotan ba...

—Gitxiago garelako... —Euzkadiko frentearen atze-
rapenak mindutzen zinduezan.

—Armarik ez daukagulako. —Txiki eta handien aho-
tan aitzakia baino egia garratzagoa zan, zoritxarrez.

—Banan-banan baletorz, orduan ikusiko genduke.
—Eta argi asko agertu gendun Gorkak bere adinekoa esku
hutsean azpiratu ebanean.

Gudarean ondorea jasan ezeze, gudean parte hartzen
zenduen zeuen nausitasuna bardin fubolera, ukabilka edo
beste eztabaidetara jokatzen zenduela.

Parisen harrera ona egin eutsuen. Musika eta guzti
etorri jatzuen jendea zeuek ikustearren. Gernikako bonba-
ketatik osorik urtenak baizintzatzen, gozokiz eta goraz
onartu zinduezan. «Oui, madame». Paristar atsegin hareei
gogotik abestu zeuntsen «Gernikako arbola». Hareek ez

egozan guzurretara linburtu, ondo be ondo ekien nortzuk erre eben Gernika. «Vive la France! Gora Euzkadi askatuta». Mundu guztia ez zala euskaldunon arerio, konturatu zintzazan. Atzerriko lagun onak eukitea, sendiko lehen-gusuak bezelatsu zirala. Itxaropenez bete zinduezan. Zuen ezipanak irribarrez loretu ziran une baten.

Baina Paris ez zan gehienon helburua. Autobusetan sartu zinduezan eta talde bakoitzak bere bidea hartzen ikusi zendun. Han joatzun Gorka, barakaldotar gehiene-kin, Limoges aldera. Han beste talde batzuk Pariseko arrabalerantz, Saint Denis eta Marnerantz. Zuek, lau auto-busgino, Belgikarantz zinoazen. Jo! Zeuri tokau be Euzkadietik urrunenera joatea. Eskerrak zuen andereñoa zeue-kin joiala. Berari itaunduko zeuntson gero eskolan zenbat kilometro ibili zenduezan.

Belgikak be ez eutsuen hutsik egin muga-mugatik hasi eta. Hareago, Frantziagaz zeinek harrera hobia egin lehian ebilela, esan zeinkeen. Hareek ogiarteko oparo eta jastagarriak, hareek limonada gozoak! Ba genkian Belgika, Euzkadi legez, lurraldez aberri txikia zala, hizkuntza bikotx-duna. Txikiak alkar defenditzea berezko emoten zenduan.

—Eta horren txikia badok, zelan defendiduko dok Alemaniaren erasotik? —Muzin egin eutsun Sabin la-gunak.

—Lurraldez txikia izanarren, biztanlez doble baino gehiago dok. Zer ba?

—Hemendik, oster, Alemania hurrago diagok...

—Alemanengandik bai, baina ez frankotiarrengan-dik...

Geografia eta Politika bereizten zenduezan zelanbait, zeuen aburuak edo lagunen gogartea jasotearren.

Belgikako bizimodu barriaz andereñoak zeozer aurreratu eutsuen, baina gauza zihurrik ez. Behar bada, han familia batetan biziko zintzazala. Edozelan be ikastetxera lagunak ikustatzen etorri ahal izango zendula.

—Baina gu alkarregaz ibiliko gara, ez da? —Zuk Sabin eta Iñaki samatik buztarrian zenduzan.

Ze ekipo egin zeinkeen ba alkarregandik aldendu? Andereñoak bekokia ixurten eutsun eta zuk bazenkian ixur harek, kontuizu, amaren «ikusiko dogu, hartuizu pazentzi handia» esan gura ebalá. Hori bai, Belgikan sendiak oso onak eta katolikoak zirela; guretzat guraso ordezkoak legez izango zirela.

Bruselara heltzean eta autobusetik urteteán, zeu, dana dala, andereñoagandik ahalik gitxien aldetzen ahalegindu zintzazan. Baina zelan jarraitu andereñoari halako maleteagaz, harek danen ardurea eukan eta?

—Ola, Jon —oles egin eutsun orduan zaldun batek, eskua emoten eutsula.

Ze u zurtz gelditu zintzazan gizon eta emakume baten aurrean. Gizona erdi burusoila zan eta kapela iluna eroan emakumeak. Irribarrez egotsuzan eta zeu serio, izen eta guzti nondik ezagutzen zinduezan ezin antzemonik. Ez eutsun deitu «Juan» maistra nazionalak legez, «Jon» baino, andereñoak listetan zuzendu ebanéz. Argi egoan ba, aitalako gizon harek paparrean zeneroan txarteletik ezagutzen zinduzala.

—Honeek Dubois senar-emazteak dozuz, Jon. —Une haretan zeure ondotik igaro zan eta Belgikara zeuokaz etorren abadeak aurkezten eutsuzan guraso ordezko bariak. —Pozarren hartuko zaitue euren etxean... Zer dinozu?

Zuk andereñoari begiratzen zeuntson, haren eritxiak edo esanak onartzeko prest baizengozan.

—Bien, Jon... —Sudur mintzo jatzun Dubois andrea, zerbait esangureaz.

—«¿Qué tal el viaje?» —jarraitu eban Dubois jaunak zeure murrizak betetearren.

Dubois jaunaren gaztelera ez zan gaztelar erdaldunarena, esakeraren doinuan igarten zeuntson. Andereñoa beste askoren aurkezpenak eta agurrak egiten arazoturik zenkusan eta Iñaki eta Sabin eta beste lagunak bakoitza bere bidetik urrintzen. Andereñoa zan zure itxaropena. Dubois jaunak paperari konsultatzen eutson.

—«Quieres comer algo?». —Zeutaz arduratzen zan.

—«Non, monsieur». —Begiradea itzuritzen zeuntson; gose baino egarriago zintzazan izan be, eta ez urez asetzeko egarriak bederen.

Andereñoak zure tenkortasuna ikusirik etorri egin jatzun azkenik.

—Egon trankil, laztana. Ardura barik joan zaitekez jaunandreokin —Dubois jaunak agurtu ebazan, agurra samurragoa izan ekizun mosua emon eutsun matrailean. —Ez zaitugu itziko...



Haxe izan zan andereñoak zeuri emon eutsun mosurik bakarra, lehenengoz barriz «laztana», amak legez, deitu eutsunekoa. Zenbat ikasi eban gure malkoak txukatzen.

Harrezkero prest zengozan zeure zaindari barriei arpegira begiratzeko. Dubois jaunak zure esku maleteta jasotzen eta Dubois andreak eta biak erdian hartu zinduezan eta zeuretzat benetan atzerriko lehen pausoak emoten hasi zintzazan. «Ez zaitugu itziko» agindua eta «laztana» deitzea, nahiko garantia zenduzan.

Dubois jaunandreek berebela eukien. Dubois jauna bera zan txoferra. Bere ondoan jesarriazo zinduzan, Dubois andrea atzeko jarlekuan egokitzen zala eta paperetik nonbait esakunik gozoenak aukeratzen ebilela.

—«¿Cómo estás, Jon?».

—«Tres bien, madame».

—«Mais c'est que tu connessais le francais?».

Gauzea horren sarratu esanda, zure frantzera labur gelditzen zan eta pot egin zendun. Oi ene! Zure frantzera «bai, jauna» eta «ez jauna» erantzutetokoa zan eta harakoan ezbaikor isilik gelditu zintzazan.

Kale zerrenda luzeen amaieran, etxe multsoak amaitu eta zuzatzen hasten zan unean gelditu zintzazen. Han egoan Dubois jaun-andreen etxea. Txalek ederra eritxi zeuntsan egoitzari, garaje eta guztikoa. Atarte apaina, goiko solairurako zurubia, bainuak, zeuretzako logealea etabar. Garbiketak egin ondoren, afaritarako prest zengozan. Dubois jaun-andreak soilik zeugaz mahaian, neskameak serbitzen eutsuela.

—«Te gustan las zanahorias?». —Iribarre egin eutsun Dubois jaunak.

—Non, monseieur —zuk irribarre bardinaz.

Azanoriak zeuri egosita gustatzen jatzuzan eta hareek gordinik egozan, jo!

Dubois jauna eta ohidanez ulertzen zenduen alkar. Harek ba ekian bakoitzean zer itaundu eta zuk zelan erantzun. Haren gaztelera zelebrea zure frantzera zelebrea goaz kontrapunto polita egiten eben, Dubois andreak berak be nahiko ulertzen zinduezala. Dubois jaunak Dubois andreak baino gaztelera geihiago ekian, paperetara gitxiago begiratuarren. Baina gero euren arteko frantzera ez zendun tutik be ulertzen. Zuk begiratu egiten zeuntsen orduan eta Dubois jaunaren biboteak zelan mogitzen ziran ohartzen eta Dubois andrearen ule orailak zelan txortaturik egozan eta txortak motoan kiribildu. Amaren uleak baino argiagoak ziran. Amak zapi baltzetan batzen eban kaskoan mottoa, zapiaren buztanak bi goradi bi beradi gelditzen zirela. Dubois andreak ostera kalean kapelu baltza eroan, «ondo portau, laztana» gogoratzen zendun atzerriko zeure zaindarien erdereaz entzunaz.

Zure begiak harrezkero loaz erreta egozan; ia egun bitako loak atzeratuta trenean eta gero autobusean egin burukadak salbu. Dubois andreak logelara eroan zinduzan, ohea azaldu, argiaren giltza jokua erakutsi, pixontzia etabar. «Dormi bien» edo holako agurra egin eutsun irribarrik gozoenaz eta logelan bakarrik gelditu zintzazan. Atzerriko bakartade esperentzi bakarra izan zan zuretzat. Han

ez egoan ez etxekorik, ez zure taldearen logelako lagunik. Ausaz ohearen hurbiltasunak edo oheburuko Kristoak amak erakutsiriko gau orazinoak gogarazo eutsuzan eta aingeru jagolearen laguntasunean loak hartu zinduzan behingoa.

II

«Orhiko txoria Orhin laket»
(atsotitza)

Eta zure lehenengo eguna argitu zan atzerriko bakar-tadean. «Buenos días» sudurretikoa opa izan eutsun Dubois andreak eta zuk «bon jours, madame» biribildu zeuntson biderdiko ahalegina eskertzearren eta hainbeste ba zenkila adieraztearren.

Kafesnea, gurina, gaztaea eta galletak izan zenduzan gosaltzeko. Halako oparotasunik ez zenduan ezagutzen. Nondik hasi be ez zenkian eta Dobois andreak begira begira «come, come» esaten eutsun. Haren erdia baino gehiago gogotik eskeiniko zeuntsen Bilbon eta Erandion errazionamendu gosekilaz egozen hainbat umeri. Baina halantxe zoriaren aldikadak: atzerriko penen orde z mahai oparoa zeuri eta aberriko pozen orde z urribizia haeri.

Ondo gosaldu ondoren, Dubois jaunandreek berebi-lean hartu eta Brusele ingurutxo a egitera atara zinduezan, hako «Ume Pixontziaren» uria harrezkero zeurea bailitzan. Hareek bai kaleak, parkeak, plazak... Dubois jau-

naren ondoan zinoazen eta harek, berebila apur bat galgatuz, «ves? Es el Parlamento» hatzamarraz adierazten eutsuzan etxagintzarik harrigarrienak. «Bai, bai —marmaritzen zendun zeure artean— ba dakit Bilbo baino gehiago dala, baina ez daustazu, esan beharrik... Orain gainera, mingarriago da, Bilbo bonbaketen izupean dagola... Esango zeunkit bestela, alemanen arranoalako txori gaiztoak habia egitera baletortzuez...».

Zeuk ez zendun ezertxo be Bruselaren kontra, baina handitasunaren liluratik alde egin behar zendun, zeurea zantxoari zintzo jarraitzearren. Zuretzat ez egoken Bilboko Portua eta Bilboko untzigintzalakorik, ez eta Barakaldoko Labe Nagusialakorik. Eta fubolera joatekotan, nor gure Aitmetik ainakorik?

Berebila itzi eta jantzi-dendara eroan zinduazan. Dubois andreak praka eta jake barriak erakutsi eutsuzan. Zuk margoetan urdina gurako zendun, baina harek marioa aukeratzen. Zu isilik. Zuk arruntak nahiko zenduzan, baina harek bonbatxoak aukeratzen: belgikar zeure adineko mutikoen modea hanean. Jo! Zer esango ete eben Josune eta beste neskalagunek zeu bonbatxoekin ikustean? Marradun alkondara barria ondo jatortzun, baina korbattea zertarako? Beste enbajada batetako umea ete zintzazan ba? Jantzi eta ezpiluari begira zeure ule motxean eza gutzen zendun zeure burua.

Laster zenkusan bera be arraiatara orrastua. Bada ez. Dubois andreak biseradun txapela ezarri eutsun eta orduantxe gelditu zintzazan amaren semea ezagutzen ez zendula. Euskaldunon txapela izan bazan sikeran, baina denda haretan ez egoen erakusmenerakorik be. Halatan jan-



JESSE-85

tzirik, belgikar kume bihurtu, zelan aurkeztu zeinkekezan zeure lagunen aurrean? Bonbatxoak tira, marroi koloreak tira, gorbatea bueno, baina halako biserarik? Ezelan be ez. Dubois andrearen aurrean bai, baina Josuneren aurrean-eta ez. Galdu egin zendula, etxean ahaztu jatzula, edo edozer esango zeuntson Dubois andreari.

Jazkera barriak horren itxuraldatzen zinduzala, Dubois andreak orduan eta liluratuago begiratzen zinduzan eta hurragotik jarraitzen «ikusten dozue gure mutila» esango baileuan, soinekoa erosiarren, bereago baizinduzan. Ausaz garriko barriari maila bat emotearren, idunpetik gorbatea egokitzearren, jakearen botoia iztearren edo gal-tzerdiaren ixurra kentzearren. Txikitan amak egiten eutsuzanak, gorbatearena izan ezik. Ba zengozan ba egon, Dubois jaun-andreen etxean umerik ez egoela eta... Ikastetxeren baten egon eitekezan, zeure arreba Miren monjetan egon zanez, edo soldadutzan, Fermin zure anaiaren adinekoa bazan.

Eguerdirako gonbidadua izan zenden Duboisenean. Jo! Odile, zeure adineko neskattoa, zeu baino pitinen bat hazitxoagoa, baina zihur uleak gangartxoago eukazalako Mahaian aurrean jesarri jatzun eta eskua emon eta agurrak ostean mu gelditu jatzun begiez zeu arakatzen, frantzesik ez zenkien «bitxo rarolakoa» baizintzazan. Etxeko alaba gazteena? Ezbaitan zengozan zeu. Dubois jauna aurreratu jatzun bere lobatxuaren aurkezpena egiten. Eskola lagun ona izango zendula ziburtatzen eutsun, zeure frantzeraz zaletasuna ikusiez gero...

—«Sabes andar en bicicleta?» —Polito aztoratu zinduzan Dubois jaunak. —«Odile te puede enseñar»...

Dubois jaunak esanala, irribarrez oneristen Dubois andreak. «Igarri egin dautsue. Zelan ekien txirrindul zalea zintzazala? Ez zenkian txirrinduletan, baino ez zintzazan txirrindularren erosta gitxi emona. Eta hara, zeuri txirrindulea erosteko urtea zala, gudatea Euzkadin. Eta agur Euzkadi eta agur txirrindula...

—«Allons-nous!» —hots egin eutsun Odilek.

Ezbai bako agindua zendun eta neskeari jarraitu zeuntson. Haseran biok oinez parekide zinoazen, gero parkeko espaloitik berak txirrindulez igeskatatxoak egiten ekitsun. Ole! Zein txairo egin be txorta punta batetako txoriak hegaz egiten eutsola. Zeure txandea heldu jatzun. Txirrinduletan ez zenkian eta orain albotik eta gero ostetik Odilek laguntzen eutsun «astiro, astiro» agirika baten zendula. Txori erdi lumatuen tirriaz zeu be hegaz egin gurarik, askatu egin zintzazan, zeure trebetasuna adieraztearren. Une baten bapo, baina bira emokeran, punbala! Odileren hasarreak orduan, «merde» eta guzti, ez zeuri belauanean egin minagaitik, txirrindulari pedalean egin zeuntson urratuneagaitik baino. Agirikatan eta auzimauzitan txirrinduletan beste frantzera erakusten eutsun Odilek. Neska harroa bera. Dana ekitsun, dana agindu behar eutsun eta zereko ume zurtzari baino be begiramen gitxiago barriz... «Jo! Ez nei...» haginak estutzen zenduzan, barrutik amorratzen, baina haxe zan agindu eutsuen andereñoalakoa. Ederra ba jatzun ba zati bat Odile urrezko bere txorta biekaz, bata atzeradi, aurrera bestea. Baina ez zendun gura izan haren txortetako txoria. Ausaz aske egon behar zendun Euzkadi askatzeko. Gainera, alde emonez bakarrik, konturatzen zintzazan orduan neska



JESSE-85

ederrik ba egoala Oleronen osatu eta gero sakabanatu jatzuen taldean. Josune, Itziar edo Libe, esate baterako. Harek gainera ez etortzuzan dana dakienean handiputsaz, euskera arruntean baino. Aberriko taldeagandik, atzerriko liluleratara bialdu zenduezan zeu, zintzotasunean probatzearren.

Odilek eskuturreko erloxuari begiratu eutson eta «allons-nous» agindu eutsun ostera be. Duboisenera itzuli zintzazen askaritarako. Gero iluntzean, Odile bere etxera joan zanean, zein amorragarri eta erabat zein entretenigarri zan, ohartzen zendun.

Haste bi igaro ziran eta zeure lagunak eta andereñoa ikustatzeko epea luzakor egiten jatzun.

—«Esperamos noticias» —zirautsun Dubois jaunak.

Heldu egin zan halako baten andereñoaren eskutitza. Duffeletik zan. Etxe bete ume ei euken, barriak gehienak; nire taldekoak barriz erdiak baino gehiago sendietan. Dubois jaunaren izenean etorrenez gero, dana etorren frantzeraz, zeuri egitsun agur berezia izan ezik.

—«Qué quiere decir esto?» —Dubois jaunak ez eban ulertzen.

Zeuharro zengozan orduantxe noizbait zeurea zan hizkuntza berari itzultearren eta andereñoak amaren antzantzera «zelan zagoz, laztana» inotsulako. Gurako zendun Dubois andreak eta Odilek euskera haxe itzulten ikusi bazinduezan.

Duffelera zinoazen Dubois jaunagaz, Bruselatik kilometro batzuetara. Andereñoa aurkitu zendun, Sabin zeu-

re lagun muzinduak barre egin eutsun, nesketan Itziar baitibat. Eurekaz berbetan zeure bonbatxoen taxuaz eta gorbataren polikeriaz ahaztu egin zintzazan. Txapelik ez gero. Eurak be itxura baten egozan, jantzi barrietarako ehun egokia idoro eben antza. Euskera egiten zendun, aspaldiko ogia gozoagoa bailitxatzun eta Dubois jauna konaturatu eiten haxe zala zure berbetea eta ez beste erderak. Bihotza ondo egurastu itzuli zintzazan Duboisenera, hurrengo ikusaldiaren ordua ondo markatzen zendula.

Hile bi joan ziran harrezkero. Zure amesa Odile txirrintuletan nausitzea zendun. Txirrintula banaz bakarrik argitu eiteken nor zan bizkorren zirkuitoan. Txirrintula txandatu beharrak, gero kronometrajea Odilek berak egin beharrak —artean ez zendun erloxurik— ez eutsun zihurtasunik emoten. Eta erloxua izan zendunean be tranpea susmatzen zendun.

Ekainean urteak betetzen zenduzan: hamar urte, eskuak bete, hatzamarrak lain. Ba zendun susmoa harakoan erloxua baino erregalo handiagoren bat izango zendulakoa. Odile bazkaritarako gonbidatu egoan. Nonbait zure atzerriko lehen urtebetetzetik etxe-min guztiak urrundu behar ziran eta erregalo haren pozak zeunkazan izan be.

Ostaz egin zendun lorik gau haretan eta goizean itxartu orduko ba zenkian zure gelara sartu eben erregaloea zein zan. Txirrintula ohe aurreko hormearen kontra tente eta tentagarri egotzun. Manilar makurra zan eta kuadro-duna. «Bikaina benetan Odileri parkeko zirkuitoan irabasteko» eskutik zenkusan garaipena ezelako tranpa barrik. Manilarraren makurdura dizditsua ikutzean, paper bat ohartu zendu bertan frenoaren harietan kokatuta. Ida-

tzia irakurri zendun «A querido Jon el día su cumpleaños. Papá y mamá». Erratua ikusi zendun begi bistan eta gauzea burutan irauli barik, zuzendu egin zendun. Hartu eskola lanetako arkatza eta «Papá y mamá» zirriborroz atzindu eta «Los señores de Dubois» idatzi zendun. Pajera manillarra eta frenoari hari artean lehengo lekuan itzi zendun eta harrezkero beste dizdira batez zenkusan manillarren makurdura. Ausaz txikerregia zintzazala uste zendun letratan eskola Dubois jaun-andreei emoteko. Baina bestalde argi egotzun, zureak «aita eta ama» zirela. Ez zenkusan zeure partetik edukazino akatzik; hizkuntzen okerra agian.

Neskameak gozaltzeko deitu eutsunean, ez zeneroan pozjario handirik. «Zer? Pozik egongo haz...» begi ertza jaso eutsun neskameak, gaina zeuk ezpain estutu, txar-teleko erratuaren zimikoaz zengozan. Mahaiko galletak beste egunetakoak baino itxuratsukoak ziran, baina zuk gose gitxiago zendun. Aiztoaren puntan gurina jaso eta eskuak dantza egiten eutsun. Orduan Dubois andrea goiko gelatik neskameari dei larriak egiten hasi zan. «Zer jazoten ete jako Dubois andreari» beste lainoren bat susmo zendun zeure urtebetetzea lorrintzearren etortzula.

Neskamea joan zaneke, hara non Dubois jauna itzel eta benatsu jatortzun eta begiradaz salatzen.

—«Le has dado un gran disgusto, Jon... Ella está llorando».

Dubois jaunari begitu eta ogi gurindua eskutik jaus-ten jatzun. Burua makurtu zendun, ezin ulertuzko errua zeuregan ikustean. Ez zendun jadanik goserik urdailean,

ez galletak ehioteko indarrrik matrailetan. Ahoan zendun mokauak ez ekitsun atzera ala aurrera egin, «escusais moi» edo esateko zengozan, baina ez zintzazan ausartzen.

—«Acaba eso» —zirautsun Dubois jaunak.

Ahaleginak egin zenduzan, baina zuk amaiturik zenkusan egunaren ditzira. Dubois andrea ez zan jaizten urtebetetzearren zeuri zorionak emoten. Zeure partetik prest zengozan azalpenen bat emoteko. Zera... Zure gurasoak: aita eta ama...

—«No te quiere ver...» —zihurtatu eutsun Dubois jaunak.

Odile bazkaritarako etorri zanean, ez eutsun bezperatako lausengurik egin, ez «zorionak zuri» abestu. Zeure pekatuaren jakitun egoan, eta murrizaz gizortzen zinduzan.

Arratsaldean ez gendun txirrindulik edo txirrindul lehiaketarik aipatu biok txirrindul banadun egonarren. Han egoen ba okerra! Egun osoan ez zintzazan zeure gelan sartu, zera ez ikustearren. Eguedatea muxatsua izan bazan, atsaldea sapuztua. Odilek turrut egin eutsun eta zuk zeure lagun arruntengan, Sabin eta Itziarrengan, beste lagunengan, andereñoengan pentsatzen zendun. Etxe-minez zengozan eta lokarrietatik askatu. Gau haretan poztu baino ez zintzazan egin zure gelatik txirrindula ahiendu egin zala ikustean.

—«Todo está arreglado» —esan eutsun Dubois jaunak hurrengo goizean.

Gizonki portau jatzun Dubois jauna. Dubois andrea-rena zuk ezin zeinken ulertu: seme bako andrea zan eta...

Duffelerako prest zengozala, txirrindula ea zeugaz eroan gura zendun, itaundu eutsun. «Mila esker» zuk, baina Duffelen ez zendula txirrindul beharrik. Han zuetariko iñork ez eukala txirrindulik-eta. Gauetik goizera mutil adindun erantzuten zendun eta gorantziak izten zentsozan Dubois andreareztat eta Odilerentzat.

«Agur, Odile. Gure txirrindul apostua ezina izan zonan». «Agur Dubois andrea; erratuarren be, gure amak eta nik bihotzez eskertzen dautsoguz zure ardurak».